

+ ARGIBIDEA -GEZURRAK + BIZIKIDETZA-GORROTOA + GUZTIONTZAKO ESKUBIDEAK

8 PROPOSAMEN MIGRATZAILEEN BIZIKIDETZA ETA ESKUBIDEAK BERMATZEKO 2025EKO ABENDUAREN 18A

UGT Zerbitzu Publikoak sindikatuak, abenduko 18aren eguna, hots, Migranteen Nazioarteko eguna dela eta, pertsona guztien eskubideen babesaren alde egin nahi du, honengatik garrantzizkotzat jotzen dugu:

1.-GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO SINDIKATUA GARA.

Sindikatuak garen aldetik, lantokietan arrazakeria eta gorroto arrazoibideen kontra borrokatzeko konpromisoa hartzen dugu, lan-ingurune ziurrak, begirunetsu eta diskriminaziorik gabekoak sustatzen ditugula.

2.- DISKRIMINAZIO ANITZA KONTUAN IZATEN DUEN EKINTZA SINDIKALA SUSTATZEN DUGU.

Sindikatuaren konbentzimendutik, langileek pairatutako diskriminazio ugariak, irmotasunez defendatzen ditugu (jatorria, etnia, generoa, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa, identitatea, erlijioa edo egoera soziala)

3.- MIGRATZEA ESKUBIDEA DELA IKUSARAZI ETA ONARTU EGITEN DUGU.

Guztionez, lan eta gizarte-eskubideak defendatzen ditugu; haien errealitatea aitortuz eta baloratuz, edozein dela haien jatorria, hizkuntza eta azentua.

4.-ANIZTASUN ETNIKO ETA KULTURALA AITORTZEN DUEN ERREFERENTEA IZAN NAHI DUGU ETA ARRAZAKERIA ZEIN XENOFobia GIZARTETIK EZABATZEN LAGUNDU NAHI DUGU.

Gure konpromisoa tratu-berdintasunarekin eta duintasunarekin berretsi nahi dugu; ezaugarriak, jatorria, kultura edota erlijioa axola gabe eta era berean, modu aktiboan jarduten dugu bizikidetza eta berdintasuna enpleguan bermatzeko.

5.-ARRAZAKERIAREN AURKAKO POLITIKAK ESKATZEN DITUGU.

Gure lan sindikalaren bidez, arrazakeriaren aurkako politiken garapena sustatzen dugu administrazio publikoetan; pertsonetikiko eta herritarrekiko edozein tratu arrazista edo diskriminatzaile prebenitu, detektatu eta artatzen duten ekintzen eta protokoloen garapena azpimarratuz.


6.-ARRAZAKERIA PREBENITZEKO ETA ANIZTASUNA SUSTATZEKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK EMATEN DITUGU. Prestakuntza espezifikoak garatzen ditugu gorroto-diskurtsoak identifikatzeko eta geldiarazteko, aurreiritziak desegiteko eta ordezkari, plantillei eta zuzendaritza-taldeei edozein diskriminazio-motaren aurrean esku hartzeko eta laguntzeko tresna praktikoak emateko.

7.-BIZIKIDETZA SUSTATU ETA GORROTO-DISKURTSOEI AURRE EGINGO DIETEN NARRATIBAK SORTU BEHAR DIRELA USTE DUGU.

Sentsibilizazio-kanpainen bidez, gizarte osoaren bizikidetza sustatuko duen eta eskubideei eta aniztasunari balioa emateko gaitasuna izango duen narratiba bat bultzatu behar dugu. Gezurrak desmuntatzeaz gain, herritarren artean pentsamendu kritikoa sustatuko duten estrategiak garatu behar dira, batez ere hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuan.

8.- ENPLEGUAREN EREMUAN PARTE HARTZEKO ETA AHALDUNTZEKO ESPERIENTZIAK INDARTZEN DITUGU.

Berresten dugu sindikatuak parte hartzeko eta eraikuntza kolektiborako gune bat izan behar duela, non langile guztiek bat egiten duten, gure aniztasuna aitortuz eta pertsona guztien eskubideak defendatuz, jatorriaren, etniaren, kulturaren edo administrazio-egoeraren, lan-egoeraren edo egoera sozialaren bereizketarik egin gabe.



UGT



Servicios Públicos